

KODE IREKIAREN KULTURA: Ezagutzara sarbide librea izateko tresnak



2012ko ekainaren 5etik 7ra

Sarrera doan edukiera bete arte

Aldaketen garaia da. Egungo produkzio eta kontsumo-ereduak aldatu nahi dituzten korronteak indartzen ari dira. Ezagutzaren alorrak ere izan du horren eragina. Gero eta gehiago dira klasikoaz bestelakoak diren jakintzarako sarrera eta produkzio-ereduen alde egiten duten ahotsak. Ezagutza irekiagoa, parte-hartzaileagoa, askeagoa.

Ezagutzako produkzioaren eta kontsumoaren arteko loturak noranzko bakarrekoa izateari utzi dio eta joan-etorriko, etorri eta joaneko, bide zirkular bihurtu da. Sarean lan egitea, partaidetza eta lankidetzaren prozesuak sustatzea, ideiak bateratzea, baliabideak eta ezagutzak partekatzea... hori guztia lankidetzaren guztion onerako izan dadin eta denok etekina ateratzen dezagun, bai emaitzetatik, bai prozesutik bertatik. Jakintza ikasten jarraitzea ahalbidetuko digun guztion ondasun gisa bultzatzea.

Jardunaldien xedea herritarrei lankidetzaren, irekitzearen eta denon onuraren filosofia partekatzen duten tresnak hurbiltzea da. Tresna teknologikoetatik hasi –software librea edo kode irekikoa, esaterako– eta denon onerako diren lankidetzaren eta/edo proiektuen finantziario kolektiboko ekimen zehatzetara.

Ekainaren 5a, 19:00etan

Jardunaldien aurkezpena

Amaia Maestre Larrad. Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroko arduraduna.

Software librea: ezagutza kudeatzeko modua.

Daniel Armendariz. Ekintzailea eta teknologia libreko berrikuntza-ereduetan aditua. Gaur egun, SALEko, Eusko Jaurlaritzako software librearen bulego teknikoko, koordinatzailea da.

Armendarizek software librearen kontzeptuan oinarrituko du hitzaldia, historiaren errepasoarekin batera, jatorritik gaur eguneraino eta gure bizitzetan izandako inpaktua aztertuko du, arreta berezia eskainita softwarearako sortutako ereduak sarean zabaltzeko moduari, egun sortu diren gobernu irekiko ereduak iritsi arte. Software librearen kontzeptuarekiko hurbilketa, ezagutza kudeatzearen garrantzia eta hedapen librea.



Ekainaren 6a, 19:00etan

Dinux, hezkuntzaren alorrera aplikatutako Linux-en banaketa baino gehiago.

Aitor Lopez de Aberasturi. Dinux proiektuko arduraduna (Diocesanasko).



DINUX (Linux eta Diocesanaseko "D" eredu batzetik) Diocesanaseko 2006az geroztik garatutako hiru hizkuntzako (euskara, gaztelania eta ingelese) sistema eragilea da eta hezkuntzaren alorrean ordenagailuarekin lan egiteko behar guztiak asetzen dituzten 900 programa baino gehiago ditu. Gaur egun Diocesanaseko 140 ordenagailu baino gehiagotan, lau mediatekatan eta bost ikasgelatan instalatuta dago eta, horrez gain, beste ikastetxe batzuetara zabaltzeko hedapen-prozesuaren erdian dago, hezkuntzaren alorrean kode irekiko softwarearen erabilera sustatzeko.

BabeliumProject: hizkuntzen ahozko praktikarako eta elkarrekin lan egiteko kode irekiko aplikazioa.

Juanan Pereira. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako irakaslea (UPV/EHU).



Babelium proiektua Donostiako Informatikako Fakultatean sortu zen duela bi urte, bigarren hizkuntzetako ahozko adierazpena praktikatzeke sistema irekia eraikitzeke xedearekin, horretarako, bideo interaktiboak erabilia. Egun euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko ahozko adierazpena praktikatzen duten milaka erabiltzaile ditu. Erabiltzaileen kolaboraziozko ebaluazio-sisteman oinarritzen da, horrela, lan komunitarioa eta ezagutza bateratzea bultzatzen du. Partaidetza eta lankidetzak bultzatze aldera, kreditu-sistema erabiltzen da (ez ekonomikoa) sistemari eskatzen zaionaren eta horrek eskaintzen duenaren arteko oreka lortzeko.

Saregune, software librearekin esperientzia Alde Zaharreen.

Ainara Perez. Sareguneko arduraduna.



Saregune teknologia berrien erabilera parte-hartzaile Gasteizko Alde Zaharreen dinamizazio sozialerako tresnatzat bultzatzen duen proiektua da eta, horrez gain, pertsona guztiak teknologia berrietarako sarbidea izatearen alde egiten du, prestakuntzarako eta informaziorako iturri gisa. Arraila digitalaren haustura interesgune hartuta, Saregunek beste "arraila" batzuk apurtzea du xede (kultura artekoak, bizilagun artekoak, elkarte artekoak, hezkuntzakoak, harremanetakoak...); horietan teknologiaren hurbilketak eta erabilerak gainditu beharreko izaera instrumentala du, aldaketa sozialaren planteamendutik. Jardueren izendatzaile komuna kode irekiko softwarea da, herritarren eta elkarte-ehunaren esku jarrita prestakuntza-erabiltzaile libre eta doakoa, era berean libreak eta doakoak diren aplikazioetan oinarrituta.

Software librea Montehermosoko liburutegi-kudeaketarako eta erabilera publikorako

Amaia Maestre Larrad. Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroko arduraduna.



Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroak guztira abiatze bikoitzeko (Ubuntu-Windows) informatikako hemeretzi postu eta software libreko aplikazio ugari ditu publikoaren eskuragarri. Kode irekiko teknologia berrietara hurbiltzeko eremua da. Horrez gain, kode irekiko aplikazioaren KOHA liburutegi-kudeaketako programa duela gutxi abian jartzeak liburutegiko langileen eta erabiltzaileen beharretara egokitzeko tresna malguagoa izateko aukera ekarri du.

Ekainaren 7a, 19:00etan

Goteo.org. Guztion onerako finantziario kolektiboa.

Enric Senabre Hidalgo. Platoniq kolektiboa (Bartzelona).



Platoniq kolektiboak urteak daramatza ezagutza irekitzearen eta bateratzearen eta kulturarako sarbide librearen alde egiten. Proiektu gehienetan erabiltako software eta hardware libreen tresna erabat teknologikoei *crowdfunding* edo finantziario kolektiboaren tresna gehitu die orain. Gaur egungo proiektua, Goteo.org, gizarterako izatearen, hau da, guztion onerako izatearen premisa beteko duten kultura, hezkuntza, teknologia, gizarte, merkataritza eta abarretako proiektuak finantzatzeko eta horiekin lan egiteko sare soziala bilakatu da.